

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Pejenaute kontseilariak Vicente Ferrer fundazioaren “Bicis que cambian vidas” (Bizitza aldatzen duten bizikletak) kanpaina solidarioaren stand-a bisitatu du

*Ekimenaren xedea, Vueltaren barruan egin dutena, Indiako neskabilen hezkuntza bultzatzeko 200 bizikletan finantzatzea da*

Viernes, 17 de agosto de 2012

Jesús Pejenaute Gizarte Politiken kontseilaria [Vicente Ferrer fundazioaren "Bicis que cambian vidas"](#) kanpaina solidarioaren Iruñeko stand-a ikustera joan da gaur goizean. Sarasate pasealekuan dago jarrita, Espainiako Vueltaren hasierarekin lotutako jardueren barruan.

Kontseilariarekin batera izan dira Pruden Induráin

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Paz Prieto Iruñeko Udaleko Gazteria eta Kiroleko zinegotzi berezia, Miguel Induráin txirrindulari profesional ohia, Jesús Sukuntza eskultorea eta María Zulaika Vicente Ferrer fundazioaren Nafarroako ordezkaria.

Horiez gain, bisitan 2012ko Espainiako Vueltan parte hartuko duten Caja Rural, Euskaltel eta Movistar txirrindulari taldeetako ordezkariak eta Reyno de Navarra emakumeen txirrindulari taldekoek hartu dute parte.

### Indiako neskabilentzako 200 bizikleta finantzatzea

Vicente Ferrer fundazioaren "Bicis que cambian vidas" kanpainaren asmoa 200 bizikleta erosteko finantzazioa ematea da, Indiako beste horrenbeste neskailek eskolara joateko aukera izan dezaten eta, hala, bigarren hezkuntza ikasten jarrai dezaten.

Fundazioaren arabera, bizikletek Indiako landa inguruetan bizi diren neskailek eskolara joateari uztea saihesten lagunduko dute, han ia ez baitago garraio publikorik eta eskolak haurren herrietatik hainbat kilometrotara baitaude. Hortaz, bizikletei esker, ikasleek lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako urratsa emango dute eta, nesken kasuan, ikasketak amaitu edo goiz ezkontzearen artean aukeratu ahal izango dute.

Kanpainaren stand-a Iruñeko Sarasate pasealekuan egongo da irekita abuztuaren 19ra arte, 12:00etatik 20:00etara. Haren ondoan Jesús Sukuntza eskultore nafarrak tamaina errealean egindako hamar bizikleta



Pejenaute kontseilaria (erdian) stand-era bisita egitean ondoan izan dituenekin.

egongo dira ikusgai. Altzairu herdoilgaitzez eginda daude, 60 eta 80 kilo arteko pisua dute eta zazpi urtean egin ditu eskultoreak.